



IÑIGO URIBARREN GARAY

MONDRAGON GOI ESKOLA
POLITEKNIKOKO
ikasle arrasatearra



GOIAZ! 2018

Lanbide Heziketaren Azoka
Apirilaren 17an eta 18an
Kulturaten, Arrasaten

  [goiazdebagoiena](#)



DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune
eta Lurralde Orekako Departamentua

DEBAGOIENEKO LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK

IKASKETAK:

Erdi-mailako eta goi-mailako ziklo bana egin ditu.

GAUR EGUN:

Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa goi-mailako heziketa zikloa ikasten, bigarren mailan. Praktikak burutzen Copreci kooperatiban. Lanbide Heziketako ikasketak goi-mailako kirol jarduerarekin bateratzen ditu.

Zergatik aukeratu zenuen Lanbide Heziketa?

DBH bukatuta batxilergoa hasi nuen, baina ez nuen motibaziorik topatu jarraitzeko, eta orientatzaileak erdi-mailako ziklo batera bideratu ninduen; Kirol jardueren gidaritza egin nuen Oñatin.

Zein izan da zure ibilbidea Lanbide Heziketan?

Erdi-mailako zikloa amaituta, urtebetean sarbide froga prestatu, eta goi-mailako Itsas garraioa eta alturako arrantza ikasi nuen. Baina lanerako aukera gutxi zegoen arlo horretan, eta horregatik, ikasten jarraitzea erabaki nuen.

Eta zein izan zen hartutako erabakia?

Unibertsitatera joateko aukera mahai gainean jarri nuen, baina inguruko enpresa asko industrialak direla ikusita, eta mekanika arloko Lanbide Heziketa ikasi duten ingurukoen esperientzia ezagututa, Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa goi-mailako

heziketa zikloa ikasten hasi nintzen. Eta oso gustura nago.

Zein da zure helburua orain?

Bi urtetan lanean hasteko prestatu naizela uste dut. Eta gogotsu nago lanean hasteko. Badirudi, gainera, eskaera handia dagoela arlo horretan.

Nola moldatzen zara kirol jarduera eta ikasketak bateratzeko?

Astean birritan joaten naiz Donostiara entrenatzera, eta laguntza handia eman didate irakasleek entrenamenduetara eta kontzentrazioetara joan ahal izateko; laguntzeko prest daude, azterketa datak moldatu dizkirate, esaterako.

Gomendatuko al zenuke Lanbide Heziketa?

Bai, aukera interesgarria dela uste dut. Badirudi batzuetan unibertsitatea dela aukera bakarra, eta ez baduzu hori egiten ez dagoela besterik. Baina geroz eta argiago dago Lanbide Heziketako aukera asko zabaltzen dituela.